

8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak enpresa batek egin behar dituen beharrezko jarduerak dira, balio proposamena funtziona dezan. *The mirror*-en funtsezko jarduera plataforma edo sareko jarduera bezala funtzionatzea da. Gure negozioa enpresa bat da eta beraz, lehenetsua eman behar diogu bertan egiten ditugun mugimendu guztiei: enpresaren kudeaketa, mantentzeko eta sustatzeko jarduerak ere.

Enpresa aurrera joan dadin, beharrezkoa da gestio egokia egitea eta horretarako hainbat gauza egitea pentsatu dugu. Hasteko bakoitza egiten dakiena egitea da. Bakoitza bere indarguneetan lan egitea komenigarria delako; bezeroei arreta berezia ematea, beste enpresa batera joan ez dezaten. Hori lortzeko, planifikazio zehatz bat egingo dugu; bakoitzaren gaitasunak kontuan harturik.



Horretaz gain, iragarkiak egingo ditugu bezeroei gure produktuaren berri emateko; beraz, garrantzitsua da iragarkiak eguneratuta edukitzea. Horretarako, etengabeko mantenua egingo dugu, merkatura ateratzen diren eta erabilgarriak izango diren herramientak erabiliko ditugu, enpresaren funtzionamendua hobetzeko. Gainera, gure bezeroei laguntza eskatzen diegu noizean behin gure produktuak erabiltzen dituzten bitartean, haiek badakite eta esan dezaketelako zer hobetu genezakeen produktuan zein publizitatean.

Gainera, enpresa bat daramagunez batzuentzat saila izan ahalko litzake hori gerta ez dadin geure giza-jarduera prest dago arazo hauek konpontzeko.

